

# **BEZEROAREKIKO**

## **HARREMANAK**

Merxek online egingo du salmenta, eta, beraz, gure bezeroei zerbitzu automatizatu bat eskaintzen diegu web orri baten bidez. Bestalde, app bat daukagu, eta bertan bezeroek beren historiala ikusi ahal izango dute, korrelazioan, laguntza behar izan duten aldiekin edo beren historial medikoarekin (bigarren hori bezeroa horrekin ados badago soilik jarriko da indarrean). Era berean, atal bat dugu gure web orrian bertan, eta, horri esker, gure bezeroek iruzkinak utz ditzakete zalantzaren bat izanez gero, produktuarekin ados ez badaude edo eskaera ez bazaie iritsi kalkulaturako epean, baita produktuari edo enpresari pozik daudela adierazi nahi badute ere.

Hori gutxi balitz, gure web orrian harpidetzeko aukera izango dute edo, bestela, gure web orriko jakinarazpenak erregistratu eta aktibatzen badira, eskaintzak, deskontuak eta sumilarrak jaso ahal izango dituzte. Urrats bat harago joateko, bezero bat gure app edo web plataforman erregistratzen edo harpidetzen denean, jakinarazpen bat iritsiko zaio dagokion produktuaren teknologia hobetu den bakoitzean, hau da, hura eguneratu denean. Eguneratzea ahalik eta errazena izango da ezagutza teknologikorik handirik ez dutenei produktua eguneratzea zaila irudi ez dakien. Horretaz gain, plataforma digitaletan bertan, produktuetako bakoitza barne hartzen duen GPSari esker, artikulua denbora errealean non kontatzen den jakin ahal izango dute.